



«Momentuan momentukoa egin behar dugu, ez baitakigu hemendik bi egunetara nola egongo garen»

Sektore guztietako langileei, adin guztietako herritarrei eragiten diete COVID-19, Koronabirusaren hedapenaren aurkako neurriek. Garbiñe Makatzaga Otxandorena goizuetarrak, Ereñotzuko Txirrita eskolako zuzendariak, bertako berri eman du.

EREÑOTZU TXIRRITA ESKOLA

Nola eragin dizue eskola ixteak?

Eragina haundia da, egunero-kotasunetik aldaketa haundia da. Lehenengo abisua izan zen, umeak ez etortzeko, eta hasi ginen zuzendaritzatik prestatzen nola lan egin hemen, eta nola bideratu etxerako lanak edo jolasak; zer egin zezaketen etxean. Aprobetxatu nahi genuen, baita ere, eskolan ditugun proiektuak eta plangintzak garatzeko, gure artean lan egiteko. Eta hori, gutxi-gorabehera, bideratzen ari ginela, bat-batean etorri zen agindua, guk ere ezin genuela eskolan egon. Horrek gauzak zailtzen ditu. Ikasleekin ezin gara egon, eta irakasleok, gure artean, ere ez. Eskola hutsik dago. Ni bakarrik geratu naiz hemen, eta momentu honetan lan egitea nahiko zaila da.

Nola hasi zarete antolatzen?

Hasieran, gurasoei gomendioak bidali eta guk hemen gure plangintzarekin aurrera jarraitzeko asmoa genuen. Baina asteburuan hartu da erabakia, hemen ez elkartzekoa. Elkartzeko beste bide batzuk erabili behar ditugu, eta teknologiak, horretan laguntzen du. Ireki dugu txat moduko bat, eta irakasleok bertan partekatzen ditugu dauzkagun asmoak. Elkarriketarako aukera badaukagu. Bideo-deiak egiteko aukera aurrerago ikusiko dugu. Horrez gain, badauzkagu sare gehiago. Driven lanak partekatzen ditugu. Hori, gure eskolan. Beste antolakuntza modu bat, lagungarri egiten ari zaiguna da, EAEko 170 bat zuzendari gauden Telegram sarea. Erabakiak hartzean, hemen bakarrik sentitu beharrean, badaukagu aukera ikusteko beste eskoletan zer egiten ari diren, beraiei ikuskariak



Garbiñe Makatzaga Otxandorena zuzendaria izan da Txirrita eskola zapaldu duen azkena. Bideoa: 'kronika.eus'

zer esan dien.. Eta Eskola Txikien whatsapp ere badugu. Ez da berdina eskola haundi batek izango dituen erronkak eta guk ditugunak. Ondo datozkigu elkarren artean hitz egiteko modu hauek, elkar ikusi ezin dugunez.

«Kezka gehiago sortu daiteke seigarren mailako ikasleekin, DBHra dijoaztelako»

Nola ari zarete neurri eta erabakiak hartzen?

Egunez egun. Ostegunean erabakia hartu ostiralerako, eta ostiralean jada ez zuen balio. Eta ostiralean saiatu ginen planifikatzen zerbait, eta asteburuaren ondoren, ezin garatu. Pazientzia haundia behar da orain, gauzak lasai hartu. Eta ari gara. Goizeko 09:00etan zerbait pentsatu, eta saiatzen gara ikusten ea horrekin jarraitu dezakegun. Egunean egunekoa eta momentuan

momentukoa egin behar dugu, ez baitakigu hemendik bi egunetara nola egongo garen.

Bigarren ebaluazioaren bukaeran zaudete. Zein lan daukazue egiteko?

Bukatu da guretzat, eta esan nahi du informeak bidali behar direla etxeetara. Eskola batzuek guraso bilerak egiten dituzte eta guk ez; batzuekin biltzen gara konkretuki, nahi dugulako. Informeak emaitze bidaltzen Eguberrietan hasi ginen, eta beraz, hor ez dugu zailtasunik. Irakasleak momentu honetan informeak bukatzen ari dira, eta etxean egin dezaketen lan bat da. Programazioak ere etxean egin litezkeen gauza dira. Horretarako, goizeko 09:00etan (martxoaren 16an) elkartu gara hemen zuzendaritza taldea. Hiru gara: ikasketa burua, idazkaria eta ni, zuzendaria. Aritu gara pentsatzen zer egin dezakegun. Saiatuko gara Drivera igotzen uestez behar izango ditugun dokumentuak, hemen ez egoteko. Bihartik aurrera etxean egongo gara. Ira-

kasleei eskatu zitzaie etxean geratzeko, eta etorri behar bazuten, izan zedila liburu edo material bila, eta ez denak batera. Horrela, bigarren ebaluazioari bukaera emateko arazorik ez dugu.

Ikasleekin nola ari zarete lanean?

Ostegunean tutoreek irakurtzeko liburuak bidali zitzaizkien; jolasen bat eta etxerako lanak ere bai, fitxak. Gure asmoa da gaur bertan prestatzen ari naizen galdeketa bidaltzea gurasoei, jakiteko zein baliabide dituzten etxean. Ez ditugu edukietan aurreratzeko bideak jarri nahi, ez dakigunean etxeetan denek teknologiak badituzten: ordenagailuak, inpresorak... Hori ere, pixkanaka, eta egunean egunekoa ikusiz. Batez ere, gomendioak bidaltzen dizkiegu; zer egin dezaketen egun osoan zehar ez aspertzeko. Etxetik atera gabe egotea oso gogorra izango da bi-hiru egunetan. Gaur, adibidez, Katiluzar Guraso Elkartearen whatsappera erronka bat bidali diegu. Balkoiak apaindu eta argazkiak guri bir-

bidaltzeko, gero blogean jartzeko. Elkar komunikatzeko beste modu bat izan daiteke. Horrelako gauzak ere bidali ditzakegu.

Irakasleren batek baja hartu behar balu zer gertatuko da?

Ez dakit nola funtzionatuko duen. Ordezkorik ez luketela bidaliko pentsatzen dut. Baina ez dakit, ez dut galdetu.

Gaixotzeko beldurrik izan duzue?

Ostiralean umerik ez genuen, baina bai, beldurra badugu. Baina ez irakasle izanagatik, herritar garelako baizik. Hemen justu kutsatzeko beldurrik ez dut, baina kanpoan bai. Hemen lan-kide gutxi elkartu gara. Elkartu baino gehiago, ikusi egin gara! Distantzia mantendu egin dugu, esan dizkiguten gomendio guztiak jarraitu nahian. Baina konturatu gara oso zaila dela; elkar-tu eta elkarri papera pasatzean, adibidez, kutsatu bagintezkeen, kutsatuko ginen, eta horrela joango ginake etxera.

Lehen Hezkuntzara arteko ikasleak daukazue. Honek guztiak eragin dezake ikasleengarapen akademikoan?

Haur txikiei gogorra egingo zaie etxean egon behar dutelako, baina hartu dezakegu oporraldi bat bezala. Esan nahi dut, agian ez direla ari ikasten irakurtzen, baina ikasiko dutela. Ez da ezer gertatzen. Kezka gehiago sortu daitezke seigarren mailako ikasleekin, datorren urtean DBHra dijoaztelako. Baina baliabideak jarriko ditugu ikas dezaten. Hala ere, gu itxita gauden bezala, DBH eta institutuan ere nabarituko dute, eta ezingo dute berdin egin lan. Datoren urtean ikasleak uste baino lan gutxiago eginda badoaz, ulertuko dute. Elkar ulertuko dugu. **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

GAUR Gaur ostarte zabalak egongo dira eguerdirako. Goizean, zerua nahiko lainotuta egongo da eta arratsaldean, bero-lainoak azalduko dira, temperatura berdintsu izango dira gaurkoan. **Min.10° / Max.19°**

BIHAR Bihar eguzkia nagusituko da. Zerua hodei gubirekin egongo da, goi-hodei batzuk agertuko dira soilik. Orokorrean tenperatura ez da aldaketa askorik espero. **Min.9° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



%57,9 ko babesarekin, 'Erribera' izango da kultur etxe berriaren izena

Asteazkenean amaitu zen kultur etxe berriaren izena hautatzeko galdeketa, eta %57,9 ko babesaren izenak. Guztira 198 pertsonak hartu dute parte.

ASTIGARRAGA KULTUR ETXEA

Asteazkenean eman zitzaion amaiera, kultur etxe berriaren izena hautatzeko galdeketa. Guztira, 198 pertsonak eman dute beren botoa. Horrenbestez, ehun boto baino gehiago jaso direnez, erabakia loteslea da eta, beraz, kultur etxe berriaren izena *Erribera* izango da.

Erriberak %57,9 aldeko boto lortu zituen eta *Manttonik* berriz %42,1. Parte hartze gehiengoa emakumeek izan zuten, izan ere, %63,1a ziren. Gizonezkoen



'Erribera' izango da kultur etxe berriaren izena.

parte hartzea, %36,9koa izan da.

Aipatu moduan, kultur etxe berriaren izena hautatzeko galdeketa honetan ehun pertsonak baino gehiagok parte hartzen bazuten, loteslea izango zela,

eta, emaitza loteslea atera da, 198 pertsonak hartu baitute parte galdetegian.

Udalak eskerrak eman nahi izan ditu, «parte hartu duzuen guztioi eskerririk asko». **K**

'Gorabeherak' websaila gaurtik, Ttap aldizkari digitalaren eskutik

'Gorabeherak' ikus-entzunezko sail berri bat sortu du Ttap aldizkari digitalak, umorezko kapitulu laburrez osatuta, eta hamabostaldian behin eskainiko da.

URUMEA GORABEHERAK WEBSAILA

Gaur emitituko da lehenengoz Ttap aldizkari digitalak sortutako *Gorabeherak* websaila. Ikus-entzunezko sail honek, umorezko kapitulu laburrak ditu, eta hamabostaldian behin eskainiko da. Nerea Arriola eta Kepa Errasti dira *Gorabeherak* websailaren aktore protagonistak.

Ttapan lantaldea, «oso ilusionatuta» dago proiektu honen inguruan, izan ere, argi utzi dute, «mimo handiz egin dugu, eta uste dugu emaitza dibertigarria eta oso txukuna dela. Gogo handia dugu publikoari erakutsi eta iritziak jasotzeko, guri behintzat ederra iruditu zaigu».

'Gorabeherak' websaila

Planteamendu «oso sinplea» dela azpimarratu dute sortzaileek.

leek. «Izogailu bat izango dugu, hildakoak zerura ala infernura eramaten dituen. Izogailu horren arduraduna Ramon da, izogailuzaina, eta berak egoera xelebreak biziko ditu izogailuan gora hala behera eraman behar dituen eta denok ezagutzen ditugun pertsonekin. Pertsonaia horien artean denarik izango dugu. Gehienak euskaldunak izango dira, baina Euksl Herri-rik kanpokoak ere ez dira falta».

«Eskerririk asko proiektua posible egin dutenei»

Gorabeherak proiektuan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete Ttap aldizkari digitalekoek, hain zuzen «Tabakalerako 2deo Laborategi eta Bertako Izogailuak enpresari, egitasmoan sinistu eta babes ekonomikoa ematea».

gatik». Gaineratu dute, babes eske joan zirenean «idea polit bat» besterik ez zutela eta «uste dugu eskertu eta aitortzeko modukoa dela gudan konfiantza osoa jarri eta ideia hutsa zena diruz laguntzeko apustua egin izana. *Gorabeherak*, kajoi batean gordetako ideia polit bat litzake haien laguntzarik gabe».

Hamabostaldian behin eskainiko da.

Non ikusi, 'Gorabeherak'

Aipatu moduan, gaur emititzen da lehenengoz Ttap egunkari digitalaren *Gorabeherak* websail berria, eta bertan humorea izango da gai nagusia. Websail hau ikusteko, Ttapek duen aplikazioa deskargatzearrekin nahiko da, doako aldizkari digitala baita.

Amaitzeko, sorkuntza lan berri hau ikustera animatu nahi izan du jendea Ttap aldizkari digitalak, «emaitza gure ustez behintzat, bikaina eta oso dibertigarria da, eta espero dugu publikoaren oso gustuko izatea». **K**

Gaur ere positiboak gora, eta beste hildako bat

45 positibo berri Gipuzkoan. Nafarroan berriz 96 positibo izan dira, eta hildako bat gehiago egon da.

URUMEA KORONABIRUSA

Atzo eguerdian eguneratu zituzten COVID-19 birusaren eraginaren datuak. Gipuzkoan 45 positibo berri egon dira, eta hildakoek 5 izaten jarraitzen dute. 45 positibo horien artean, Urumea baialaran bost detektatu dira, 3 Hernanin eta 2 Astigarragan. Gipuzkoan, Ospitalean 54 lagun daude, atzo baino 5 gehiago.

Nafarroan aldiz, positiboak

ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN	NAFARROAN
45 positibo berri	96 positibo berri
176 positibo guztira	482 positibo guztira
5 hildako	5 hildako
54 ospitalizatuta	132 ospitalizatuta
*Hernanin 3 Astigarragan 2	

gora egin du, 96 deketatu baituzte, 132 daude ospitalean eta hildako bat gehiago dago. **K**

Asteroko azoka, soilik elikagaien salmentarekin

Udalak adierazi du, ostegunero Urbietan kalean egin ohi den azoka gaur egingo dela. Elikagaien postuak dira denak.

HERNANI UDALA

Ostegunero, Urbietan kalean egin ohi den azoka, ez da kenduko, gaur egingo da, baina elikagaien salmentarekin bakarrik. Guztira 12 bat postu egongo dira, eta «neurri bereziak hartuko dira, jendea ez pilatzeko».

Udalak hartutako erabaki

hori, ez da bakarria izan, izan ere, Covid-19a dela eta, neurriak hartuko dira hondakinen bilketan. Hondakinen gaikako bilketa, ohiko moduan egingo da, baina Koronabirusak kutsatuta edota berrogeialdian dauden herriarrek, jakinarazi behar diote Udalari, «etxebizitza horretako hondakinak modu berezi batean jaso behar direlako».

Kutsatuta egon ez gero, deitu

Kasu horietako bat izanez gero, 943 54 30 16 edo 668 841 774 telefono zenbakietara deitu, eta bertan azalduko zaizkizue eman beharreko pausuak. **K**

Entrenimendua etxean, Doberarekin

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Dobera Euskara Elkarte etxetik ari da lanean, eta «egun hauek ahalik eta goxoen pasatzeko, eduki ezberdinak sortzen gabiltza». Sare Sozialetan, *Burbunak eta estayak* dvda egongo da ikusgai. Horrez gain, atzo txokolatzeko bizkotxo egiteko errezeta baten berri eman zuten, eta mintzapraktikako kide batek idatzitako liburu baten gomendioa ere igo zuten.

Aurrez aurreko bilera, bertan behera

HERNANI KALERATZEAK STOP

Covid-19ak eragindako egoera honen aurrean, Hernaniko Kaleratzeak Stopek, bertan behera utzi ditu aurrez aurre egingo ziren bilera, «beste abisuren bat eman arte behintzat». Gehitu dute, nahiz eta egoera honetan egon, ez dutela jarduera alde batera utziko, eta Hernani Kaleratzeak Stopen plataformara jo daitekeela, 604 112 740 ra deituz, edo stopdesahucioshernani@nodo50.org helbidera idatziz.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**